

Ezdago zer esanik, Euskaltzaindiak biotz beteko aguréz erantzun diola.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzañaldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Azaroa' ren 22'an.

Batzañaldi ontara aipatzen diran euskaltzañiak datoz: Azkue maipuru, Urkijo, Lakonbe, Landeñetxe, Konstantin, Intza, Eguskitza, Altube ta Intzagarai eta urgazletatik Bahr jauna.

Araudiak agintzen duan otoitza egin-da asi da batzañaldi au.

1. Aita Intzak irakuñi ditu Napañoako Aldundiari igorñi nai dizkion bi idazki, Etxañi-Aranaz ta Donestebe'n izan diran euskal-egunen beñi emanik ta batez ere adierazirik zenbat onura ekañi dien toki oietako euskaldunai euskal-egun oiek; ta zertan eralki diran sorospideak. Euskaltzaindiak onetsi ditu idazki oiek.

2. Euskaltzainburuak esan du: Bilbo'ko Udalak orain arterañoako sorospidea euskaltzaindiari emango diola: Aldundiak ordea urñitu du berea ta datoñen urterako 5.000 peseta bakañak emango ditu. Arazo ontan, Azkue jaunaren iritzi onena auxe litzake: *Comisión de Hacienda* deitzen dan baltzuari itz egin, geyagoko sorospidearen eskabidez, ofetarako Etxegarai Karmelo jauna bitartekotzat jañi-ta.

3. Euskaltzainburu berak esaten du: Donestebe'ko euskal-egunen ondoren angoxe alkateari idatzi zitzaio-

la, efi ortako ikastetxean euskera saferazteko eskabidez, bañan ez duela alkate jaun orek ezertxo erantzun. —Bergara'ko *Enseñanza* deitzen dan ikastetxeak auxe erantzun du: iñork ez duela euskal-ikastaroaren eskaririk egiten ta oregatik ezin jari ditekela. —Beriz' ko ikastetxetik ez dute ezer erantzun; Zumaya'kolik ere ez.

4. Kisaldatzea orain egin bear da. Oretarako autarkitara jo da araudiak agintzen duenez, ta lenengo aukeratu bear dana Euskaltzainburua da. Onela datoz autarkiak:

Azkuek-9

Utsean-1

Urena Zadorlarigoa jo da autarkitara. Auxe dator:

Intzagarai-ek-9

Altube'k-1

Beriala dator Diruzayaren aukerapena ta autarkiak auxe dakarte:

Altube-8

Eguskitza-1

Urkijo-1

Iker-saileko buruzagia aukeratu da uren ta kisa onen autarkiak onela datoz:

Kanpion-entzat-8

Urkijo-entzat-1

Lakonbe-entzat-1

Jabon-saileko buruzagia aukeratu da autarki abetaz:

Aita-Intzak-7

Eguskitzak-2

Urkijok-1

Azken, Gutunzayaren aukerapena autarkiz onela dator:

Lakonbe-ri-9

Urkijori-1

Beraz uréngo bi urterako Euskaltzaindiaren kisa-
goa auxe izango da:

Euskaltzainburu: Azkue

Iker-sail buru: Kanpion

Jabon-sail buru: aita Intza

Diruzai: Altube

Gutunzai: Lakonbe

5. Eleizalde euskaltzain maitearen ordez beste bat aukeratu bear da. Araudiaren aginduz, Azkue, Kanpion ta Urkijo jaunak Etxegarai Karmelo jauna Euskaltzain-gai aurkezten dute. Beste euskaltzañak ez dakarte iñor. Autarkifara jo da ta autarkiak onela datoz:

Etxegarai Karmelok-9

Utsean-1

Etxegarai jauna beaz, auérantzean, euskaltzain izango da. Beronek aukeratuko du saéerako éria ta bertan egingo duen itzaldiari Eguskitza jaunak eran-
tzungo dio.

6. Euskalkiai dagokien *Mapa* bat egitea Euskaltzaindiak erabaki du.

7. Bahr jaunak Schuchardt jakintsuaren iritxi bat agertu du. Aburu ori euskal aditzari dagokio. Schuchardt jaunari deritzaionez, euskal aditza *pasivo* da. Bahr jaunak olbeltzean egin ditu iritxi ofen adibideak.

Beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta, oitu-razko otoitzez batzañaldi au amaitu da.
